**2.006**


Tiburtzio donearen pestak
2006ko abuztuaren 1
a: Amaia Agirre

## **Azalaren lehiaketan** parte hartu duten kartelak **2006**




Iriber Arangoa




Joxe Mari Zabaleta




Junkal Otxotorena




Juan Martikorena




Juan Martikorena




Maite Saralegi

## Irabazlea: Amaia Agirre. Zorionak!

# Alkatearen agurra

**AMETSAK, UFFFF!!!!!**

AMETS BAT DA, herriko talde politikoak adostasunera ailegatzea, arazoak denon artean moldatzeko,

AMETS BAT DA, bakoitzak norberaren arazoen gainetik herriaren arazoak jartzen dituztela pentsatzea,

AMETS BAT DA, gure hizkuntza etxe guztietan, kalean, dendetan eta enpresetan, ahotan, karteletan eta idatzietan erabiltzea,

AMETS BAT DA, kritika ezkorrak eta deskalifikazioak, aportazioei eta ideien trukaketei bidea ematea,

AMETS BAT DA, etiketak eta topikoak bazterrean uzten direnean eta pertsonak beren balioagatik juzkatzen direnean soilik,

AMETS BAT DA, gure herriari bide propioa lantzeko eskubidea eta ahalmena onartzea,

AMETS BAT DA, benetako pakea lortzea, iñorren tutelarik gabe, biolentziarik gabeko egoera batean,

AMETS BAT DA, Leitzako arazoak konpontzeko bolondresak dozenaka pilatzen direla ikustea,

AMETS BAT DA, mendiak eta larreak ikutu baino lehen errespetuzko jarrera erakustea eta mugak jartzea,

AMETS BAT DA, agintariek erabakiak hartu aurretik, interes pertsonalen gainetik interes publikoa jartzen dutenean,

AMETS BAT DA, herriari, beretzat dituen sinboloak erabiltzeko ahalmena eta askatasuna aitortzen zaionean,

AMETS BAT DA, baliabide naturalak gehiegi gastatzen ari garela ohartzea, argia pizterakoan edo kotxea hartzerakoan,

AMETS BAT DA, uniformerik gabeko mundu batean bizitzea,

AMETS BAT DA, kontsumoa eta materialismoa bigarren maila batean gelditzea,

AMETS BAT DA, jendea bere eritzia emateko beldurra galtzea,

AMETS BAT DA, dogmak eta jarrera inmobilistak desagertzea,

AMETS BAT DA, aurrekontuekako 0,7a hirugarren mundura bideratzea,

AMETS BAT DA, iñoiz elkarrekin biltzen ez direnak, biltzen hastea,

AMETS BAT DA, agintariek hanka sartzen dutenean onartzea...

**AMETSAK BATZUETAN EGI BIHURTZEN DIRA, HALA BEDI!!!!!**

Leitzako Udala eta Aurrera Kirol Elkarteak
PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE herritar eta bisitari guztiei.

**16.00** | Auzoz auzo PLAZAOLA aldizkariaren banaketa, trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.

**17.00** | Txirrindulariak industrialdean; hasiberriak, alebinak eta jubenilak.







# UMEEN EGUNA

| | |
|---|---|
| **08.00** | Diana Txistulariekin |
| **10.00** | Meza |
| **11.30-14.30** | Txiki Pesta (jokoak eta puzgarriak SOINTEK-en eskutik) |
| **16.30-18.30** | Txiki Pesta (PIRATEN JOKOA, SOINTEK-en eskutik) |
| **18.30** | Aurrerako dantzari txikiak |
| **20.00-00.00** | TRIKI-DANTZ |





**11.00** | Kuadrilen arteko HERRI KIROLAK

**14.30** | Jubilatuen eta Kuadrilen bazkariak

**18.00** | Txupinazoa. Ondoren Plazaolako azalaren irabazleei saria emanen zaie eta gero Leitzako txistulari, dultzainero, buru handi, erraldoi eta "Incansables" Txaranga-rekin herrian barna kalejira.

**22:00** | Suzko Zezena

**00:00** | TXIMELETA taldea

**00:30** | "Incansables" Txaranga aterako da gaueko erronda egitea.





## ABUZTUAK 11 OSTIRALA TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

**08:00** | Diana Txistulariekin

**09:00** | Entzierroa eta behiak plazan

**10:30** | Meza

**12:00** | Aurrerako Ezpatadantzariak eta ondoren afizionatuen arteko pilota partidak plazan.

**13:00** | Aurreratik "Incansables" txaranga aterako da

**18.00** | Zezenak plazan

**19:00** | Herri Kirolak plazan
AIZKORAN: Rekondo-Nazabal / Otaegi-Mindegia
HARRIJASOTZEN: Mikel Saralegi / Joseba Ostolaza
Iñaxio Perurena

**19:30** | Buru-handiak aterako dira "Incansables" txarangarekin

**22:00** | Suzko Zezena

**00:00** | GAUBELA taldea

**00:30** | "Incansables" Txaranga aterako da gaueko erronda egitea





## ABUZTUAK 12 LARUNBATA PESTA BIGARRENA

**08:00** | Diana Txistulariekin

**09:00** | Entzierroa eta behiak plazan

**11.30** | Ordiziako erraldoiak

**13:00** | "Incansables" txaranga Aurrera elkartetik aterako da

**18:00** | Zezenak plazan

**19.00** | Aurrerako dantzariak plazan

**20:00** | Buru-handiak eta "Incansables" txaranga aterako dira Aurrera elkartetik

**22:00** | Suzko Zezena

**00:00** | J&K taldea

**00:30** | "Incansables" txarangarekin gaueko erronda





# ABUZTUAK 13 IGANDEA PESTA HIRUGARRENA

| | |
|---|---|
| **08:00** | Diana Txistulariekin |
| **09:00** | Entzierroa eta behiak plazan |
| **11.30** | Poxpolo eta Mokolo pailazoak plazan |
| **13.00** | "Incansables" txaranga Aurreratik aterako da |
| **18:00** | Zezenak plazan |
| **19:00** | Arturello Di Popolo (Umore saioa) |
| **19:30** | FRONTIS Enpresaren eskutik pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan. |
| **20:00** | Buru-handiak eta "Incansables" txaranga Aurreratik aterko dira. |
| **22:00** | Suzko Zezena |
| **00:00** | IZOTZ taldea |
| **00:30** | "Incansables" txaranga aterako da gaueko erronda egitea |





**08:00** | Diana Txistularikin

**09:00** | Entzierroa eta behiak plazan

**11:30** | Oilasko Paella lehiaketa karrapen eta Pilota partidak plazan

**13:00** | "Incansables" txaranga Aurrera elkartetik aterako da

**18:00** | Zezenak plazan

**19:00** | Bertsolariak plazan

- Jon Maia
- Sustrai Colina
- Amets Arzallus
- Maialen Lujanbio

Gai Jartzaile: Leitzako bertso eskola

**19:30** | Buru-handiak eta "Incansables" Txaranga Aurreratik aterako dira

**22:00** | Suzko zezena

**00:00** | JORGE SANCHEZ (Kubatar musika)

**00:30** | "Incansables" txarangarekin gaueko erronda





ABUZTUAK **15** **ASTEARTEA** **EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA**

**08:00** | Diana txistulariekin

**09:00** | Entzierroa eta Behiak plazan

**12:00** | Herri Kirolak Plazan
AIZKORAN: Olano-Otaño / X. Mindegia-Telletxea
HARRIJASOTZAILEAK.

**13:00** | "Incansables" txaranga aterako da Aurrera elkartetik

**18:00** | Ezkondu eta bikoteen entzierroa eta zezenak plazan

**19:00** | Ezkondu eta bikoteen INGURUTXOA plazan

**20:00** | Buru-handiak eta "Incansables" txaraga Aurrera elkartetik aterako dira

**22:00** | Suzko Zezena

**00:00** | "ORO DE MEJICO" MARIATXIA plazan
Ondoren "Incansables" txarangarekin "Pobredemie" labetxeko ataritik aterata.







# PROGRAMA DE FIESTAS06

## SABADO 5 de AGOSTO
Reparto de programas

| | |
|---|---|
| 16:00 | Reparto de programas |
| 17:00 | Ciclistas en el polígono industrial. Principiantes, alevines y juveniles. |

## DOMINGO 6 de AGOSTO
Dia del Niñ@

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana a cargo de los txistularis |
| 10:30 | Misa mayor presidida por la corporación de los niñ@s del pueblo |
| 11:30-14:30 | Txiki Pesta (hinchables y juegos) |
| 16:30-18:30 | Txiki Pesta |
| 18:30 | Ingurutxo Txiki |
| 20:00-00:00 | TRIKI-DANTZ |

## JUEVES 10 de AGOSTO
Víspera de fiestas

| | |
|---|---|
| 11:00 | Herri kirolak a cargo de los jóvenes del pueblo |
| 14:30 | Comidas |
| 18:00 | Se dará comienzo a las fiestas con el tradicional repique de campanas y posterior lanzamiento del cohete. Acto seguido el alcalde hará entrega del premio a los vencedores del concurso de portadas del programa. A continuación la txaranga "Incansables" y la comparsa de gigantes de Leitza acompañada por txistularis darán la vuelta al pueblo. |
| 22:00 | Toro de fuego |
| 00:00 | TXIMELETA |

## VIERNES 11 de AGOSTO
Día de San Tiburcio

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana |
| 09:00 | Encierro y vacas bravas en la plaza. |
| 10:30 | Misa cantada. Asistirá el pleno de la corporación municipal con la ayuda de los ezpatadantzaris del Aurrera. |
| 12:00 | Ezpatadantza |
| 18:00 | Vacas en la plaza |
| 19:00 | Deporte rural |
| 22:00 | Toro de fuego |
| 00:00 | GAUBELA |

## SABADO 12 de AGOSTO
Segundo día de fiestas

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana |
| 09:00 | Encierro y vacas bravas en la plaza. |
| 11:30 | Gigantes de Ordizia |
| 18:00 | Vacas en la plaza |
| 19:00 | Actuación de los dantzaris del Aurrera |
| 22:00 | Toro de fuego |
| 00:00 | J&K |

## DOMINGO 13 de AGOSTO
Tercer día de fiestas

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana |
| 09:00 | Encierro y vacas bravas en la plaza. |
| 11:30 | Payasos; "Poxolo eta Mokolo". |
| 18:00 | Vacas en la plaza. |
| 19:00 | Arturello Di Popolo (Actuación de humor) |
| 19:30 | Partidos profesionales a cargo de la empresa Frontis en el frontón Amazabal. |
| 22:00 | Toro de fuego |
| 00:00 | IZOTZ |

## LUNES 14 de AGOSTO
Cuarto día de fiestas

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana |
| 09:00 | Encierro y vacas bravas en la plaza. |
| 11:30 | Concurso de paella (de pollo) en el karrape. |
| 18:00 | Vacas en la plaza. |
| 19:00 | Bertsolaris |
| 22:00 | Toro de fuego. |
| 00:00 | JORGE SANCHEZ (Música Cubana) |

## MARTES 15 de AGOSTO
Día de los casad@s y parejas

| | |
|---|---|
| 08:00 | Diana |
| 09:00 | Encierro y vacas bravas en la plaza. |
| 12.00 | Deporte rural |
| 18:00 | Vacas en la plaza. |
| 19:00 | Ingurutxo en la plaza |
| 22:00 | Toro de fuego. |
| 00:00 | MARIACHI "Oro de Mejico" A Continuación "Pobre de Mí" |

# Oharrak

1 UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.

2 EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da.

3 ZEZENETAN dabiltzanei eskapa bidea errezagoa egiteko barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.

4 Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketa edo bestelakoen kargu ez gara egiten.

5 Egunero arratsaldeko ekitaldiak bukatutakoan gozokiak banatuko dira plazan.

6 **Oilasko Paella** Lehiaketako Arauak: bakoitzak bere sua eraman beharko du. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu. Paella lehiaketarako nahitaezko osagaiak: arroza (noski!), oilaskoa eta bakoitzak nahi adina barazki. Hortik aurrera bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren ariora eta betiere aurreko osagaiak errespetatuz. Epai-mahaiak hartuko du erabakia. Animatu!

## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN **OHARRAK:**

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek ez dute zertan ados egon behar bertan agertzen diren iritzi desberdinetako idazkiekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izenak jakinarazi behar dizkie aldizkariaren antolatzaileei, sor daitezkeen arazo legalaz idazkien egileen erantzunkizuna izanen direlarik.
- Gure eskerrik zintzoenak, aldizkari hau osatzeko, bere lanarekin lagundu duten idazle guztiei eta baita azalaren lehiaketan parte hartu dutenei ere.

# **Azalaren lehiaketan** parte hartu duten kartelak **2006** Gaztetxoen maila



Gaizka Leitza




Jon Iparragirre




Maialen Saralegi




Lierni Sestorain




Lierni Sestorain



Markel Barriola




**Irabazlea: Malen Lizarraga. Zorionak!**

# ANJEL ZIZTULARI

**ATTE, ANJEL, ZENAREN HOGEITABOSTGARREN URTEURRENA OROITEGUNAREN KRONIKA**

(2006-III-12)

(1)

Mende laurdena pasatu zaigu
atte zena hil zenetik
eta Pastainen ez giñun aittu
geroztik txistu soñuik
martxoak hamabian ordea
hasi zien goiz-goizetik
diana soñue han atera zen
bere betiko bidetik
motibo emanez gure etxean
hasera emateko pozik

(2)

Egun haunditako lege bidez
diana eta gosarie
karrapetiken eliz bidean
kontra giñun egueldie
Alkate soinuz ta bajopalio
gora ta bera begie
hango koskatan, hango eskaillatan
ez nao ibili berrie
oain badakit goien dagoala
Leitzeko elizatarie

(3)

Ospakizunen itxure zeuken
elizkizun nagusiak
alki mailetan ikusten zien
adin guziko jendeak.
Irurtiatarrak koru zuzentzen
kantuan fin kantariak
agur jaunak ta minuetoa
jo zuen txistulariak
atten izena goratu zuen
han bildutako guziak

(4)

Meza ondoren karraperaino
berriz e erne begie
esan beharrik ez dao baino
atertu gabe eurie
HITZEZ zabaldutako programan
zegoan iragarrie
Anjelek jotzen zittun piezakin
segiden emanaldie
askotan aittu izanagatik
ez due galdu grazie

(5)

Kalegirako soiñu gehienak
fandango ta arin-arin
Pilartxo, Eskubi,Saizar, Karretto
Kazo eta Rafarekin
atabalean Etxebe jefe
sorotarren laguntzakin
baten da besten gelditu gabe
Urko ibili zen komodin
etorkizune seguro dao
dagoan gazte koadrillakin

(6)

Alduntzindarren eguna giñun
han bildu giñen gehienak
hantxe zegoan gure ama ta
hantxe ondoreko denak
magina jende bildu zitzium
emateko zorionak
gure artean berriz bazien
alai eskertzen zuenak
baita kokotza zimurtu eta
larri ibili giñenak

(7)

Karrapekoa bukatu eta
eguerdiko poteoa
haren beharrak bagiñuzen da
earki sartzen zen ardoa
presaka xamar ibili ginen
ah ze katiuska giroa!
txistulariak jarri ziguen
erritmoa ta pausoa
ziztu bizian kalegirata
ziztu bizian tragoa

(8)

Bazkalordua allatu zen da
ORAIÑEN giñeuken zita
bi aldiz iñori esan gabe
puntual geuden eserita
otordua zen paregabea
edari goxoz bustita
Martin ta Iñigo portatu zien
goiz-goizetiken hasita
keinu ttiki bat nahikoa du guk
berriz itteko bisita.

(9)

Enpo aseta bazkalondoren
giroa etzen makala
zintzurra heze mantendu giñun
kantatu etorri hala
kontatu zien txisteak eta
beste hainbat martingala
tarteka berriz txistu saioa
ohiture zar den bezala
pieza berririk eztzegoan baino
repertorio zabala

(10)

Ez giñen mahi ingurutik muittu
eguna ilundu arte
bertan gelditttu izan bagine
etzen guretzako kalte
baino igande atsaldekoa
ezin ba utzi aparte
nahiz eta jende gutxi ibili
karrapeko lana bete
hola dabiltzen txistulariak
meritu latza daukate

(11)

Taldeko bati esaten nion
pesta ospatu aurretik
oitabost urte iraogatik
Anjelek itzala badik
beste pesta bat antolatzeko
aitzakiak eman zetik
Anjelen eskolakoak gattok
erantzun zien barrendik
parrandakoan gastatzen diu
gramatike berberetik

(12)

Hamabiraino heldu ezkeo
osatu behar dozena
nere buruari jarri nion
lan hau egitteko dema
astindu dittot buru baztarrak
eta martxan jarri sena
eskerrak AURRERA ta KARRAPE
eta eskerrak LEITZE dena
holako egunak haseran poza
eta bukaeran pena

Zito

# Ateraldik

ORDOTXAK TXIKIATU EZKERO...

Zerri txikiatzailea etorri behar zuenean albienteak yotzen zuen:

-Datorren astean zerri txikiatzailea etortzekoa da. Zerri ordotxa txikiatzea hamar pezta kobratuko do eta zerri aardie hogeita hamar pezta.

Eta neska batek bazterretik: "Ordotxak txikiatu ezkero zertarako txikiatu aardik?"

Aardie=zerri emea.

ZAKURRAREN BUZTANPEAN NAHIAGO

Nafarroako iparraldeko herri batzutan eguberritan auzokoek elkarri musu emateko ohitura dute.

Maria, leitzarra, Kankan zegoen neskame. Eguberri goizean mezako aldiak eginda badator Maria estera eta auzoko bi mutulzaharrekin egin zuen topo. Egunonak elkarri emanda mutilzaharrek esan zioten Mariara: "Ez al diguzu musurik eman behar?"



Eta Mariak: "Hara, zuei musu eman baino nahiago dot zakurrari buztana goratu eta haretxen azpin musu eman."

ABEK YO

Zakar arekoan eta soy haustekoan bero haundie bazen inon ziren euli guziak biltzen ziren behietara. Ezpak, biboak, abek...Biboak euli haundiak ziren baina beiak ez zituzten ahinbeste ikaratzen. Abek berriz euli txiki batzuk ziren baina horzka oso mine zutenak. Haiek ekiten ziotenean etzen giro izaten behiekin, buztana harrotu eta ziripurkide hasten ziren. Hola hasten zirenean behiei kontutzen etzen giro izaten eta "abek yo ditto" edo "eulik yo ditto" esaten zen.

"Txankona" esaten zioten bat Landan aren ari zela behiek abek yo eta bern area atzetik poteka zutela alde egin eta Arekozubin barrena ibili omen ziren ziripurkide.

Beste baten Santakutzko Beltsy baten behiak abek yo eta Mallotik Ziaten behera amildu eta lau behi hil omen ziren.

SORIAN ENTZUNA

Antonio Ruiz vegaren "Las relaciones entre Soria y Euskadi" liburuan euskal jatorria duten Soriano herri eta leku izen askoren berri ematen du eta beste histori asko ere kontatzen ditu. Soriano Cascajosa elizean objetan ari zirela pareta bat bota era paper batzuk, 1664ko diru bat eta txistua bezelako instrumentu bat aurkitu zituzten. Begira zer dion: "El instrumento musical es de madera. Demasiao perfecto para tratarse de un simple juguete infantil, tiene tres agujeros dispuestos en la misma forma que los de txistu vasco actual; esto es, uno para el dedo pulgar y dos para el índice y medio. El meñique se ha de colocar en el extremo opuesto al de embocadura y sirve también para modular el sonido".

Eta libur honek Portu zidan ikusmina asetzera joan nintzen Soriara.

Han Numanciako museoa ikusi berria nuen "Numancia", Anonio Ruiz de Vegarena hau ere. Liburu honek ere jakinbeharreko makin abat historia badu. Ez du kontatzen betiko historia harroputzza; beste ikupegi bat ematen dio.

Gero joan nintzen afaltzera horroko taberna eta jantokia batean izaten duten horietako batera. Tabernan yolasean ari ziren bi zahar. Kontu-kontari zigarroa errez botila ardoa hustu zuten eta hala zion batek:

-Una botella sin vino y una cama sin mujer la misma cosa.

HAGIN BILA BEHI SAMARRETIK

Hagineko min izugarriarekin zegoen yosten ikasten ari zen neska. Intxus loreak egosi eta hartu zuen lainoa baina sekulen baino oinaze haundiagoak. Hala egoterik ez zegoela eta joan zen dentistarengana, horroko hankarekin eraginez tornua erabiltzen zuten horietako batengana. Hango aldiak eginda etorri zen yostundegira eta lagunek galdetu zioten "Zer moduz?"

-Leku ederretik hasi don hori hagin bille. Belaunetatik gora hasi zetzeiden!

ASTAITZ

# BAI EUSKARARI LEITZALDEAN

Ekimenaren abiatzea eta faseak

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen.

Bi fase nagusi izan zituen ekimenak: lehendabiziko fasean, herritarren eta eragileen artean Bai Euskarari Akordioaren berri eman zen, eta ekimenaren inguruko giroa sortzen ahalegindu ziren.

Bigarren fasean, Kontseiluaren izenean lanean aritu ziren teknikariek (bat Leitza-Areson eta bestea Goizueta-Aranon), eragileak bisitatu zituzten, eta konpromisoak hartzeko eta ziurtagiria eskuratzeko proposamena egin zieten. Eskualdean eragile ugari dagoenez, nolabaiteko hautaketa bat egin zen, eta horiengana jo zen. Prozesuan parte hartzeko gonbita, nolanahi ere, lau herriotako eragile guztiei egin zitzaien. 150 gizarte eragilerengan jo zen. 2 hilabetez.

Bi fase horien bukaeran, azkenik, ziurtagirien banaketa ekitaldia egin zen, 2004ko uztailaren hasieran. Esan bezala, 78 eragilek lortu zuten ziurtagiria; beraz, 78 eragile horiek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartu zituzten.

Bi urte hauetan Euskararekiko konpromisoa eta lana mantendu eta areagotu egin da, aurten 81 ziurtagiri banatu direlarik:

Leitzan 51
Areson 9
Goizuetan 19
Aranon 2

Poztekoa da, bi urteren ondoren Bai Euskarari Ziurtagiri kopuruak egonkortasun bat lortzeaz gain, Leitzaldeko eragileak lan ildo bati eutsi eta beren elkarte, komertzio eta enpresetan Euskara normaltasunez erabiltzeko bide berriak irekitzen ari direla.

Leitzaldeko errealitate linguistiko eta kulturala urte askotan zehar erakunde, eragile eta herritarrek egindako lanaren ondorioa da. Denbora luzean zehar egindako lanari jarraiki, Bai Euskarari Ziurtagiriak, jorratutako bideak zein diren identifikatu eta hortik aurrera joateko proposamenak eskeintzen ditu.

Honela elkarte, komertzio eta enpresa bakoitzak bere funtzionamentu eta baldintzen arabera urtetik urtera euskararen erabilera normalizatzeko helburuak erabakitzen ditu.

Azpimarragarria da norberak irekitako bideak gainerakoentzat ere erabilgarri izaten direla eta aurten lan politak eta interesgarriak ikusteko aukera izan dugu: Idatziz eta ahozko komunikazioan euskaraz aritzen diren elkarteak, lanean euskara oinarri bezela hartuz bezeroen arabera publizitatea ere euskaraz edo elebitan egiten duten enpresak, konpromisoa bera ikastetxean parte hartzen duten eragile guztiengana komunikatu eta ailegatu arazteko ekitaldi eta lanak, administrazioari zerbitzuak eta komunikazioak gutxienez euskaraz izateko egindako eskariak...

Zorionak beraz orain arte egindako guztiagatik, zuetako bakoitza sortzen ari zareten posibilitateengatik eta euskararen inguruan elkarlanerako irikitzen ari zareten bideengatik.

# EUSKAL HERRIA, KONPONBIDEAREN ATARIAN

Seguruenik, Euskal Herriaren askatasunaren bidean, gure herriaren eskubideak aitortuak eta errespetatuak izan daitezen, azken hamarkada hauetan izan dugun aukerarik onenaren barruan murgilduta aurkitzen gara. Azken aldian ikusten den hainbat gertaerak hori adierazten du. Hala ere, eskuartean dugun aukera hau gauetik goizera eta bere kasa ez dela etorri azpimarratu beharra da. Azken hamarkada gogor hauetan Ezker Abertzaleak egindako lanari eta borrokari esker baizik. Ezker Abertzaleak urte luzetan bakardadean borrokatu behar izan du, duintasunez eta tinkotasunez egoera zailenei aurre eginez, eta oso bidesari garestia ordainduz.

## AUKERA BERRIAREN GAKOAK

Une itxaropentsu hauen aurrean gaudelarik, on da hausnartzea zein izan diren egoera berri honetara ekarri gaituzten faktore nagusiak. Hauek dira esanguratsuenak, gure ustez:

- Ezker Abertzaletik haratago sektore ugarik bat egin dute Euskal Herria aitortua eta errespetatua izateko eskubidearekin, prozesuaren amaieran azken hitza euskal herritarrek izan dezaten.
- Nazio eraikuntzaren bidean, bere apaltasunean, urratsak ematen ari dira: Nazio Garapen Biltzarra, Udalbiltza eta arloz arlo egituratzen ari diren ekimenak hor daude lekuko gisa. Euskal Herrian gero eta argiago dago gatazkari irtenbide politikoa eman behar zaiola, beste aukera errepresibo guztiak porrot egin baitute, Ezker Abertzalea legez kanpo utzi izana barne, oraindik orain ondorio latz batzuk larrutik ordaintzen ari garelarik.
- Orain bi urte Batasunak aurkeztutako konponbiderako proposamena, zeinek herritarren eta gainerako eragileen artean harrera ona izan duen. Bertan, aurkeztutako formula erabat barneratuta dago:
  Konponbiderako mahaia sortu, gizarte eragile eta alderdi politikoen artean adostu beharrekoa.
  ETA eta Estatuaren artean negoziazio prozesua burutzea.
- Ukazioaren eta errepresioaren aurrean, herri sektore ugari bildu da presoen eskubideen alde zein eskubide zibil eta politikoen defentsan.
- Franco diktadorea hil ondorengo hiru hamarkadak iraun dituen Estatu ereduak porrot egin izana, nahiz botere faktikoak gaur egun berregituratzen eta berpizten saiatzen ari diren.
- Aurreko puntuari lotuta, azken 31 urteetako egoera mingarria luzatu besterik eginen ez lukeen Ibarretxe Plana indargabetuta geratu izana.
- PP-PSOE Estatu Ituna hautsi izana.

## HELMUGA

Euskal Herrian dauden alderdi eta gizarte eragileen artean, euskal herritarrei hitza eta erabakia emanen dien bidea adostea. Inolako muga eta inposaketarik gabe. Horretarako, besteak beste, Ezker Abertzalea legeztatzea, errepresioa etetea eta presoak Euskal Herriratzea ezinbesteko eta premiazko pausoak direlarik. Igor Astibia etxean nahi dugu!

ARRISKUAK

Lantzen ari garen bide berri hau ez da samurra izanen. Gaur egun arantza ugari ateratzen ari bazaio ere (gertatu berriak ditugu bi leitzarren atxiloketa salagarriak, ultraeskuindar espainiarren aitzindari Grande-Marlaska epaileak zabaltzen ari den prozesua hondatzeko asmoz aginduak), aurrerapausoak ematen diren heinean arantza zorrotz gehiago sortuko zaio han eta hemen. On da hausnarketaren puntu honetan gogora ekartzea Lizarra-Garazi prozesuan Joselu Geresta gaztea nola azaldu zen drogatuta, noraezean zebilela, lehenik eta tiroz hila gero, kontrolatua izateko hagin batean gailu elektroniko bat txertatuta zeukala.

Halako ekintza basatietaz gain, badira beste motatako arrisku politikoak:

- PNV-PSOE bikoteak ziklo autonomiko berria ezartzea (Katalunian egin duten moduan):
  - Prozesuaren guttienekoak saihestuz (Euskal Herriaren aitortza eta errespetua)
  - Urratsik eman gabe prozesua luzatuz (herritarren artean urduritasuna eragiteko).
- PP-UPNk etengabe erasoak antolatzea (beste alderdietan beldurra eta nahasmena eragiteko).
- Estatuak Ezker Abertzalea asimilatzeko saiakera egitea, balizko eta ustezko ahulezian oinarrituta.

Alde guztietara, eta arriskuak arrisku, Ezker Abertzaleak prozesua muturreraino eramateko hautua egina du, bidean aurkeztu daitezkeen oztopo guztiei aurre eginez. Horretarako, Ezker Abertzaleko kidegoak eta jarraitzaileek orain, herri bezala, bizi dugun egoeraren garrantziaz eta dugun aukeraz jabetu behar dugu. Aurrerantz urratsak emateko, ezin gaitezke lo zorroan edota gora begira geratu, zer etorriko zain. Prozesuak aurrera eginen badu, Ezker Abertzalearen borrokarako grina izanen da gakoa. Erasoei aurre egitea ezinbestekoa da, nazio eraikuntzaren bidean Euskal Herri osoa ongi antolatu eta arloz arlo lan egitea bezalaxe. Pausoz pauso, Euskal Herriaren askatasuna lortu arte.

Animo, garaipena geurea da eta!

*Euskal Herria Askatuko kideak*
Leitza-2006

# AZKEN TRAGOA EMAN NAHI NUKE, EGUZKIARI BEGIRA

Zortzi hileko erdialdean
Ez lore eta ez sasi
irrintzi, oihu, ele eta ulu,
marmario eta garrasi,
haize gozoa, leitzaranetik,
sarri garbi, sarri nahasi,
Leitzar guztien ator beltzetan
Jai gozo astelehen gazi
Ai festarikan ez bageneuka
zeri so parrandan hasi.

Gure bandera landatu dugu
Udal balkoi muturrean,
Gazteak daude plazatik haruntz;
hondarra, berriz, lurrean,
San Migel hotzak estu helduaz
esku baten ahurrean.
Juerga berriak egin ditzagun
bere indar laburrean,
nola malkorik ez den isuritzen
Tiburtzioren aurrean.

Kristoren miña buruko miña
eguzkiaren irteeran,
nola gazteak zorabioan
juerga enbata bezperan,
pentsatzen nago gazte ta zaharrak
berdinak ez ote geran.
Susmoa daukat gure patua
Parranda bat ez ote dan,
libre ta zabal dugu aurrean
ta edan, edan ta edan.

Heldu herria sustraietatik
tira eta gora jaso.
Jarri parranda aurrean eta
mantendu zutik hari so,
festa giroan ikus gaitezen
kalez kale, pausoz pauso.
Buruko minak zerbezaz itxi,
Edota urez eraso.
Sano ta libre San Migel bat
salbatuko da akaso.

Azken tragoa eman nahi nuke
zerbeza hiltzen ari da.
Azken tragoa eman nahi nuke
bertsoak kantatzen dira.
Azken tragoa ematen dugu
Afaritik afarira,
Azken tragoa eman nahi nuke
Baina beste bat desira,
Azken tragoa goizez ta dantzan
Eguzkiari begira.

Azken tragoa

*Unai Elizasu* (Ternuatik)

# HERRITARREI ESKERRAK

Aurtengoa urte berezia izan da AURRERA-ko futbol taldearentzat. Denboraldian zehar momentu berezi ugari bizi izan ditugu. Aipatu, zendutako AURRERA-ko kideei eskainitako omenaldian jendearen parte hartzea eta denboraldi osoan izan dugun zaletuen laguntza.

Helburu garrantzitsuenak lortu ditugula uste dugu. Jendearen futbolerako ilusioa piztea, talde gaztetxoari jokatzeko aukera ematea eta taldearen baitan giro ona nagusitzea.
Gauza jakina da gure ilusio handienetakoa mailaz igotzea dela, baina, aurtengoan ezinezkoa izan da. Ez guk ahaleginak egin ez ditugulako, baizik eta zenbaitek utzi ez digutelako.
Hain gertu izan duguna, hurrengo urtean eskuratuko dugunaren esperantza dugu. Horretarako lanean behintzat jarraituko dugu.

Ezin ahaztu gaitezke hau guztia ez litzatekeela posible izango,
GORRITZ S.L, MANDRILADORA LEIZA, LEITZAKO KOMERTZIOAK eta AURRERA-ko BAZKIDEEK ematen diguten babesik gabe.
Bihotz bihotzez eskerrik asko guztiei.

AUPA AURRERA ETA PESTAK ONGI ONGI PASA!!!!!!

*Aurrera futbol taldea*

Herritarrei Eskerrak

# HAIZEAK LEITZAKO PAGO HANDIENA HONDATU DU

Leitzako mendietan milaka zuhaitz baldin badaude ere, gutxi dira Aitzmurdiko pagoak bezain handiak. Ez dakienarentzat, Aitzmurdi Leitzalarrean dagoela esan behar da, Artzabaletako azpikaldean, eta bertan tamaina izugarria duten pago mordoa dagoela. Duten tamaina eta edertasuna dela eta, Leitzako Mendietako Ordenazio Plana egin zenean, pago mordoxka hau (17 bat ondo) bere hartan uzteko erabakia hartu zen, alegia, bota gabe uzteko. Ehundaka urteko zuhaitz hauek garai batean mugarratuak izan ziren, itxuraz. Azken 150 urteotan gutxienez, ez dira mugarratuak izan eta pagoen adarrak hazi eta zabaldu ahala, ikaragarrizko karga hartu dute. Pagoen zainak, azal xamarrekoak izaten dira eta adarren karga dela eta, irauliak izateko arrisku latza dute.

Azken neguan, Aitzmurdin txikizio handia gertatu da, eta beste kalte batzuen artean haizeak Leitzako pago handiena erditik hautsi du. Sarde-itxurako pago honek 7 metroko gerri-buelta eta 30 toneladatik gorako pisua zuen. Ekaitzaren ondoren ordea, erdia galdu du eta gelditu zaion itxura desorekatuarekin, pentsatzekoa da beste erdiak bide bera segituko duela eta lurrean bukatuko duela berandu baino lehen.

Gertatutakoa, noski, naturala da, eta zuhaitz guztiek lurrean bukatzen dute. Hala eta guztiz ere, ez legoke gaizki Aitzmurdiko pago erraldoiak ahal den neurrian zutik mantentzeko ahalegina egitea. Itxura guztien arabera, pago zahar horiei adarrik kentzen ez bazaie datozen urteetan lurrera joango dira gehienak. Adarrak kendu eta arindu ezkero, ordea, haizeak hausteko edo botatzeko arriskua jaitsi liteke. Dena dela, zuhaitz horietara igo eta adarrak kentzea lan zaila da oso, eta arriskutsua gainera. Ikusi egin behar, hortaz, seguritate-neurri guztiak hartuz lan hori egiteko gai den inor topatzen den eta guztion gozamenerako zuhaitz bikain horiek beste urte askoz zutik manten daitezkeen.

*Miel Mari*



"Aitzmurdiko (eta Leitzako) pago handiena 2005eko ekainean, erditik hautsi ondoren. Berriz ere, erreferentzirako bi lagun daude ezkerreko aldean.



"Aitzmurdi, Leitzako pago handiena zutik, 2005. urtea. Ezkerrean dagoen pertsonak zuhaitzaren tamaina erakusten du".

# MANUEL LASARTE

Leitza gure erria ainbat maite izanik, agur bero eta sutsu bat eskeini nai nioke lenengo, eta bero San Tiburtzio pestak goraldu al dedan neurrian. Ongi gogoratzen naiz Franki baserriz; antxe eman bait nituen nere bizitzaren asierako pauso garrantzitsuak eta Leitza beti buruan erabili det arrezgero pasa diran urte denetan.

Emen bezela gerta leike beste aldetan ere. Bakoitzak bere erria maite, naiz ta urrutiago bizi arren; adibidez, badira pertsonak jaio ta berealaxe gurasoekin jun eta itzuli gabeak. Beraz edozeinek esan dezake nungotarra dan baldin badaki, baña nun, nola eta zein erritan bukatuko duen bere bizitza ez bait dago jakiterik iñolako moduz. Beraz besterik gabe Leitzari argibideak eman nai nizkioke nere aldekoak, Plazaolako aldizkarian agertu ditezen.

Franki baserrian, beti edo geientsuenetan ikusten genituen kanpotarrak, mendiz mendi oiñez zebiltzanak batez ere; Urnieta, Andoain eta Ernaniko jendeak. Oso erri estimatua zuten gure Leitza baiña noiz? Udara osoan eta, San Tiburtzio jaietan behintzat. Afan izugarriz juten ziran nola gazteak ala zarrak eta sosoikoak, batzuek oiñez eta besteak trenez. Franki baserria, estaziotik bi pausora zegoenez, gure gurasoen ezaguank bixitak egin oi zizkiguten frankotan, alde artatik pasatzerakoan.

Leitzako pesta nagusiak, San Tiburtzio egunez asten ziran garzai artan eta bukatu berriz Amabirjiña egunean, errian bertako jendea eta kanpokoa aspertu baiño len. Soinujotzaile ederrik ikusten zan Leitzako plazan eta taberna guztiak leporaino beteta jendez. Aurten ere gauza ber bera espero det nik, gutxiagorik ez.

Gaurkoz, jaialdi asko, gauaz antolatzen dituzte, len egunez bezela gazte jendearen gustorako eta orain kirolariak.

Aizkolari onak beti ezagutu ditugu. Erri onek afizio beroa duenez, aurrerantzean ere sortu leizke landare jatorrak. San Tiburtziotan zezenak jartzen badakite; ori aspaldiko oitura da, eta ez dedilla galdu. Arri jasotzaile aundiak eman ditu Leitzak: lenengo asi zena Iñaki Perurena da. Urrengo Migel Saralegi eta oiek bildur piska bat sartu zioten len ortan zebiltzan batzuei. Gaur Iñaki Perurenaren semea ari da markak borobiltzen. Aizkolarietan, aipagarriak bi dira batez ere; Martin Gartziarena il zana, (au nere kinto laguna zan), eta bestea berriz Patxi Astibia. Eltziran alkarren parekoak adinez. Bai ordea aizkolari ongi osatuak biak ere.

Oraintxe bukatzera nijoa, Leitzatar denoi esker beroak eta besarkada bat emanez.

Orion 2.006ko apirillak 28an

*Manuel Lasarte*

# ALBIÑOKO PARAJEETATIK

Uste baino azkarrago igarotzen da denbora.

Hiru urte dira jada Albiñon harrobia ustiatzeko asmoa zela eta lagun talde bat elkartu eta berriro ere Herri Kontsulta burutzeko bideari ekin geniola. Atzo hasi ginela dirudien arren, denbora askotxo igaroa da jada, lan dezente bidean, baina azken urte honetako martxa, aurrekoekin alderatuta, oso bestelakoa izan da.

Aurten, irrikaz bizi dugu 2005eko Maiatzaren 22aren lehen urtemuga.

Garrantzitsua benetan herri honek egun hartan izan zuen jarrera, batetik herri kontsultak izandako parte hartzeari so eginez, eta bestetik, guretzat behintzat are garrantzitsuagoa, jasotako erantzunari esker.

Herri kontsultaren emaitzekin inongo dudarik ezin liteke egon, bozka eman zutenen %83k baino gehiagok Leitzan harrobirik ez zuela nahi adierazi baitzuen. Herriak argi eta garbi utzi zuen maiatzaren 22 hartan, Leitzaren garapen prozesua ezin litekeela harrobien menpe utzi, eta, herri honen bizi kalitatea errespetatuz, beste garapen eredu batzuk jorratu behar direla.

Herriaren garapena, ikuspegi ekonomikotik baino sozialetik ikusita, sigla guztien gainetik, herritarron borondatean oinarritu behar da: herria guztiok gara eta, beraz, herriaren etorkizuna guztion ardura da, ez udalean gure ordezkari direnena bakarrik, izan ere herritarrok gabe botorik ez, eta botorik gabe...

Herritarrek halako erakustaldi bat eman ondoren, herri batek hain argi eta ozen hitz egin ondoren, udal ordezkarien txanda iritsitakoan herriak esandakoari kasu egitea besterik ez dute. Are gehiago, gure ahotsaren oiartzuna herri mailaz gaindik ere entzuna izan denean.

Honen islada dugu, Ilbeltzak 9an, Nafarroako Gobernuko Industria, Teknologia, Komertzio eta Lan Sailak Leitzako Udalari igorritako ebazpen arras garrantzitsuan jasotzen dena

Bertan, argi eta garbi esaten zaio Albiñoko harrobia ustiatzeko aukera lortua zuen enpresari, hainbat urteetako lizentzia luzapena eta gero, kontutan harturik udaletxearen Irekiera Lizentzia lortu gabe zuela (2005 urte amaieran bukatzen zen lizentzi hau lortzeko azken epea), eta azkenik, kontutan harturik LEITZAN JAZOTAKO HERRI GALDEKETA, espedientea artxibatzea erabaki duela, inolako errekurtsorik azaldu ezean.

Esanguratsua benetan, legediak dioenez herri kontsulta “no vinculante” izan arren, Nafarroako Gobernuak berak eman dion garrantzia. Espero dezagun, herri hau gobernatzen dutenek ere garrantzia bera ematea, gaur egun nahiz etorkizunean ere. Hala ere, gisa honetako gai korapilotsuren bat mahai gainean jartzean inork inoiz zalantzarik izango balu, gogora beza 2005eko maiatzaren 22an jazotakoa.

Formula baliagarria izan da, beraz, herri kontsultarena, honelako gaien aurrean herritarrok zer pentsatzen dugun jakin ahal izateko, norberaren iritziaren arabera jokatzea ahalbidetzen baitu, gai sozialek denengan duten eragina argi utziz.

Urte bete igaro da Maiatzaren 22 hartatik. Batzuentzat beste egun bat besterik izango ez bada ere, herritar askorentzat, herriak ozenki bere iritzia eman zuen eguna izango da aurrerantzean; ez da gutxi.

Amaitzeko, Herri Kontsultaren Talde Sustatzailearen eskutik, denoi eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen...

# AURRERAKO DANTZARIK TXEKIAR EREPUBLIKARA

Urtero legez, Aurrerako Dantza taldek ekin dio bere lanari txintxo txintxo, herriko konpromisoak ahal ditton neurrin bete nahien, batzutan zuzenago, bestetan beño. Herritik aparte re, suertatzen denen ta aukera daukeunen, ateatzea gustatzen zaiu gure herrin ta elkarten izena zabalduz.

Leitzeko herrik betidanik izan do dantzarako griñe ta afizioa, hori dela medio sortu zen dantza taldea (zenbait datun arabera, aurreko mende hasierarako bazen dantza taldea) bai dantzari ttikikin ta baita haundikin e. Denak, herrin nahiz inguruko herritan dantza saio politt batzuk eskeiñi asmoz. Aurrera sortu ondoren, dantza taldea re bertako kide, Aurrerako dantzarik Leitzeko Ingurutxoa majiñe bat aldiz dantzatu izandu du ( irakurle askok e dantza saio earrak iñek izanen zatea). Pixkanaka, dantza taldea, Euskal Herriko dantza gehio ikasten joan da ta bere emankizunetan Ingurutxoaz gain, hainbat euskal dantza ezberdin eskeintzea aillatu da.

Azken urteotan, askotan aittu behar izandu du, beti dantza berak dantzatzen dittula, "repertorio" motza daukeula etab. Horrei buelta eman nahien, saiatu izandu ga (ahal izan dunen behintzat) pestetako dantza "berri" bat ikasten ta eskeintzen, pestetakoa baita gure urteko dantza saioik garrantzitsuna. Aurten e dantza "berri" pare bat dantzatzeko asmoakin ga, eztakiu lortuko dun beño, iñalak itten ai ga.

Ikusten denez, Dantza taldek gaur egun bizi don egoera nahiko aktiboa da nahiz batzuk alderantzizkoa pentsatu ta adierazi (hor zehar komunikabide ezberdinetan ikusi ta entzun ahal izan dunez). Igual gehiegi galdetu edo deuse jakin gabe indako kritikak izan die; urte guzin ez dula deus itten, soilik pestetan dantzatzen dula etab. Ia urte guzin zehar, Leitzen astero 3 edo 4 dantza entsaio itten die dantza talde haundie ta ttikie kontutan hartuta. Lan honek, ez do bere emaitza Leitzeko festetan bakarra erakusten, azken 2-3 urte hotan; Galdakaon, Basaurin, Huarten bi aldiz, Aurtitzen, Baigorrin, Leioan, etab.-etan izandu ga. Galdakaoko dantza talde bat re Leitzea ekarri giñularik.

Aurtengo re saioak eskeintzen ta hitzematten ai ga, hala nola, Lekunberriko pestetan emankizuna hitzemana daukeu ta baita Jaurrietako pestetan ( abuztun 15-en). Halare, gure konpromisoik haundina, irailen 13-tik, 17-ra daukeu, atzerrin eskeiñiko baitittu euskal dantza batzuk eta baita Leitzeko Ingurutxo eta Ezpatadantza.

## BAI BAI TXEKIAR ERREPUBLIKARA

GOAZ!! Irailen Txekiar Errepublikako Valasske Mezirici-n itten den BABI-LETO dantza-folklore jaialdire joateko gondidatuk gaude.

Esan, dantza-folklore jaialdi hau bi urten behin itten dela ta aurtengoa 7. aldie izanen da. Bertan hondoko herrialdetako dantza taldek parte hartuko dularik; Poloniako bat, Hungariako bat, Bulgariako bat, Slovakiako bat, Txekiar Errepublikako 4 ta Euskal Herrie ordezkatuz gu joanen ga.

Irailen 13-n hara aillatuko ga ta bertan lo in ondoren Valasske Mezirici-ko udaletxek ongi etorrie iñen diu bertan juntatuko gan dantza talde guziri. Dantza saioak irailen 14, 15, 16, ta 17-n izanen die, bai Valasske Meziricin bertan ta baita Kelc izeneko hirin e. Egun hoitan dantza saio ezberdinek eskeini beharko dittu; batzuk 10-15 minututakoak ta baita 30-45 minututko beste batzuk e.

Aipatu, irailen 15-n dantza talde bakoitzek bere herrialdeko janari nahiz edari tipikoak eskeiñi beharko dittula ta nahi izanez gero "stand" bat jartzeko aukera ere izanen du, produktu horik saldu nahi baldin badittu. Beraz, animatu, norbattek bere produktuk saltzea e ezagutara eramatea nahi baldin baditto auk paregabea dauke ta.

Holako bidai haundi batek dakartz kosturi aurre itteko guk "ongien" dakiun saiatuko ga, hau da, dantza saioak eskaiñi dittu. Hortaz aparte hainbat gauze antolatzel asmoa daukeu, ta bertan parte hartzea eskertul giñuke aldez aurretik. Holako aukerak ez bait askotan izaten ta bertara joateko aukera hone denari dantzan seitzeko motibazio haundi b eman diunez ez giñuke dena bertan beher gelditzeik nahi.

Besteik gabe, hurrengoan azken bida honen xehetasun batzuk kontatzeko espeantza kin ta martxa hontan seitzeko gogoakin agurtuk ga. Gogorarazi, ahal edo nahi izanezgeo gure emankizunekin goza dezazuela espero ta opa dizula eta baita pesta ear batzuk e!.

**AURRERA DANTZA TALDEA**

# TOMAS ZUMALAKARREGI

## Aaztu eziñeko Euskal buruzagi zenari, Oore aundiz

Tomàs Zumalakarregi Imaz jauna, 1.788garrengo Abenduaren 29`an, Gipuzkoako Ormaiztegi errian jaio zen, Iriarte-erdiko deritzan baserrian.

Francisco Antonio Zumalakarregi eta Maria Ana Imaz, guraso zittularik. Francisco Antoniok eta Mariak 14 seme-alabak izan zittuzten, 10 neskato eta 4 mutiko. Guzti auen aitte, 1792. urtean il zen, gure Tomasek 4 urte zittularik.

Aurtzaroa, Ormaiztegin egin omen zuen, baiña mutil kozkorra zela,

13 urterekin, bere amak, Pedro Josè Urreta, osabarengana eraman zuen. Osaba berez eskribau omen zen eta langintza au ikasi aal zezan, Idiazabalera bidali zuen. Emen, osabarekin 4 urte egin ondoren, 1804. urtean, amak Iruñara eraman zuen zerbait ikastera, baiña nik eskutan dedan liburuskak ez du deus ere adierazten; Idiazabaltik, Iruña bezalako iri aundi batera aldatzeak, urrats garrantzitsua izan omen zen beretzako. 18000 mille inguru bizilagun zituen Naparroako iriburuak, txunditurik uzten du Tomas.

Lana egiten duen nagusiaren alabagan, maitemintzen da, Pankrazia izenez.

Eta onekin ezkontzen da 1.818. urtean.

1.808garreneko otsailaren 9an, Prantziako Napoleon aundiaren Jeneral d`Armana buru zela, 2.500 prantzes gudari eltzen dira Iruñeko Arga errekara eta inguruetako muñoetan murgildurik, bertan gelditzen dira. Eta auek horrela direla, egun bat edo beste igarota, gudariek atabalen otsek batetik eta turutenak bestetik, gallen gallen entzuten zelarik, Iruñeko bidea artu eta Iruñan, San Nikolaseko portaletik sartu omen ziren. Urte auetan, Prantzesen aurkako etsai gorrotoa ernegatu zen eta Euskalerrian bezelaxe, Españiko nazio osoan. Garai au da, Zaragozako irian sortu zeneko "Matxinada", ospe aundi aundia izan zuena. Gure Zumalakarregik, emen izan omen zituen gudaritzarako, lenengo azalpenaren doaiak. Eta 1.809ko garagarrillaren 8an, izan zen "Las Eras" izeneko guda borroka eta Prantziaren aurka lortutako garaipena. Zaragozako gatazkaldia bukatuta, Euskalerrira itzuli zen. Aldi ontakoak dira ba, Donostiko eta San Martzialko gotor-lekuak. Prantziapen zeuden baiña Zumalakarregik bere goi goiko mutillekin gotorlekuak bere eskuetara bildu zituen.

Gerokoan izan zen, Jáuregui jenerala "Artzai" izengoitiz eta ospe aundi izan zuen gizona. Buruzagiarekin aritu zen, prantzesen aurka. Aldi onetan Zumalakarregik 19 urte soilik zituen. Urteak aurrera dijoazkiola esan bear da, baiñan goi mailara iristeko bidean da eta 1.812. urtean Teniente maila eldu zaio eta emendik bela Kapitaina izendatzen dute.

Aurretik esan bear det, Cadiz`ko irian, 1.812. urtean , emengo Korteetan, ospe aundia izan zuten liberalek Konstituzioa zutittu zutenean, alegia, baiñan delako konstituzio au, istillu samin eta gorritan aurkitu zen, batzuetan onartua izan zena, beste batzuetan berriz, zearo gaitzetsia, zapurtuta.

Konstituzio onek, Fernando VIIgarrenari Españiako erregetza ematen dio eta 1.831`an Napolesko Maria Cristinarekin ezkontzen da Madrilen. 1.832`an gaixotzen da eta laister xamarrean iltzen da.

Españitarrek erregerik gabe gelditzen dira. Garai au dela eta istillu eta naigabe samiñak eta urrikalgarriak sortu ziren Monarkian. Fernando VII. zenaren anaia, Carlos printzea, bear zuen izan zuzenbidez ondoreko erregea, baiña ez zen ori gertatu, baizik eta Fernando VII. zenaren emaztea, Maria Cristina, Monarkiaren erregentziaz jabetu zen. Au dela eta "Kondaira", orduan Españiako istorioak dionez, au izan omen zen Españiako lurretan sortu arrazi zuten pakearen eza eta gerraren sua piztea. Alde batetik,Kristino liberalak, alegia, Isabel II.aren alde, (au Maria Cristinaren alaba zen), deituak ezagutzen zirenak eta bestetik Carlos printzearen aldekoak, Karlistaren izenarekin ezagutuak.

Delako leenengo gerra 1.833 sortu zen eta 1.839garreneko urtean bukatu. Zumalakarregi, aldi ontako borrokaz arduratu zen, esan oi den bezala: buru-belarri.

Karlistek eta liberalek beste gerra bat ere izan zuten, 1873. urtean asi eta 1.876.ean bukatu. Euskal lurretan, gure aurreko asabek izan zittuzten gudak, naigabe samiñaz eta doillarrak, besteen artean auek ziren. Gure probintzietako Fueroei maltzurkeriz eta iruzurki bete betez egin zitzaizkien ebasketak.

Gaur egun ere, Euskalerrian gertatzen ari dena ikusi eta egunkarietan idazten dena irakurri besterik eziñezkoa degu.

1.839. urtean, abuztuaren 31`an, kendu zizkiguten lurrak eta legeak eskuratu nai dittugu. Bai, bai, segi-

tu dezaiodan gure Tomas Zumalakarregiri bere guzti guztizko izan zittuen jokabide egokiak, zuzenak batzuk, ez ainbestean besteak, gure sinismenerako zillegiak.

Gure Zumalakarregik, berak maitte eta egoki zitzaizkion jantziak erabiltzeko oitture aundia omen zuen, orregatik txapel gorria, larru beltzezko txamarreta eta galtza beltzak jazten zituen. Zaldi zuri baten gainean biziki ausardiz ibiltzera egokia omen zitzaion. Nik paper batean irakurri dedanez, irakurleei azaldu bear dizuet, Madrilgo eta Prantziko agintariak orduan batuta zeudela. Prantzitar eta Euskalerrikoak zearo mugatuta zeuden. Gotor-lekuak bearrezkoen balitzan antzera eutsi eta onik zainduak izaten ziren. Janaria, arropak eta berokiak, neguko aldia igaro aal izateko ere bai.

Euskalerrian, euskaldunen artean sortutako guda, guzti guztiz goikarria izan zen, anaiek anaien aurka elkarren ganako bate kupirik gabe. Euskal-liberalak, kristinoak, Isabel erregiñarekin, Madrilen ezartzea nai zuten, baita ere, alaberean euskaldunak betidanik izan zittuzten lurrak eta lege zaarrak kendu, ebatxi, alegia, auek au lortu aal izateko. Erregiña, Madril'ko aulkian ezarri nai zuten eta euskal Fueroak ezabatu. Eztabaida aundiak, zital utsezko ekintza ikaragarriak izan omen zittuzten Fueroen aldeko Euskal zaleekin. Au horrela izanikan, leenengo karlisten gerra, piztu zen, zein illabetean eta eguna ez dakit, bai orratio zein urtetan, 1.833 urte garrenean ain zuzen.

Ba, jakin ezazu irakurle, 1.833. urtean piztu zen gatazka onetan Zumalakarregiren ospea, doaia eta aalmenak azaltzen asi zitzaizkiola. Erderaz "Guerra de Guerrillas" esaten zirenak eta gaur egun ere direnak. Sortuarazi, erabili eta maisutasunaz bete beterik osatu eta etsaieri neurri gabeko kalte aundiak egiñez. Egindako presoez jabetu,eta gero, etsaien nagusiekin trukeko tratuak egin aal izateko.

Zumalakarregiri beste ospe aundia, onek eman zion: zelatari, isilkari lan-ekintzak egitea.

Prantziako mugak itxirik egon izateak, naigabeko ezinetsiak izan ziren gudarien agintarientzako.

Zumalakarregik bere baitan artu zuen lan- ekintza guztiz gutzi erruki errukigarria izan zen. Madrilek, alegia, goi-goi mailako gerra-gizonak, Euskalerrira bidaltzen zituen. Gure Euskalerri txiki onetara, Españiak zituen buruzagi oberenak banan banan gure errira irauli zituen. Batek poto egiten bazuen, au baztertu eta beste bat ipiñi. Ala izan zen eta den denak Jeneralak ziren: Quesada, Lorenzo, Orào, Linares, Villalcampo, Rodil, Espartero, Figueras, Carandolet, Osma, D'doyle, Còrdoba, Lòpez, Ezpoz Mina, Jáuregui, Carratala, Valdes e.a.

Guzti guzti auek aritu ziren banan banan Zumalakarregiren aurka, eta au ezin garaitu. Gero bai, egia da, Bilbo'ko borrokako gatazkan eraso batean, Zumalakarregiri bala batek iztar bat zauritu zion eta zauri au bidea dela eriotza ere eldu citación. Ondoren izan zittuzten borroketan liberalek geienetan karlistei gailendu zitzazkien eta ondoreko gertakarietan gertatutakoa da.

Bergaran izan zen besarkada, jauntxo bi artean izan zen: doillarra, doakabea, zitala, iruzurra, siniskaitza garai artako Euskal Fueroen alde zeudenentzako Batetik Maroto, karlisten general buru egiten zuena eta bestetik Espartero, liberal jeneralen alde. Au izan zen, Bergarako bailarako zelaitan ospe eta oiartzun aundi aundia izan zuen oiua, karrasia, Esparterok oiukatua eta onen oiartzuna sakabanatua izan zen Euskal lurretan: "Soldados Vascongados no temais por vuestra libertad y los Fueros èstos que seràn respetados y si alguno osara ultrajarlos mi espada serà desvainada en defensa de los mismos".

Leentxexeagoan irakurri izan dittuzun jeneraleen artean, bat bada Napar euskalduna eta ori Ezpoz Mina dezu, esaten denez militar bizkorra eta asko zezakeena. Ezpoz Minak, Rodil jenerala, gure mendietan ordezkatu zuen, baiña liburuak dioenez Rodil bezain txerren, doillarra, billaua izan omen zen. Elizondo'ko erriari ere eldu zitzaion burrukarako giroa. Emen liberal soldaduek, sail aundi batek gotor- lekua eginda omen zeukaten. Espoz Mina alde batetik, bere liberal gudariekin eta Sagastibeltza jenerala bere mutillekin Elizondo artzera joankio eta uste gutxienean, multzo bi auek liberalak eta karlistak, alegia, burruka aundi aundi bat jo omen zuten. Donamariaren Erriko lurretan karlistek garaille atera omen ziren.Eta gatazka onen ondorenean Elizondo'ko gotor-lekuz jabetzera abiatu omen ziren Sagastibeltza eta mutillak. Baita ere, Zigako errian zeuden 1.800 liberalek, karlistei eraso bati ekin ziela. Eta karlistek irabazdun atera.

Euskalerriko borroka auek ain doillarrak, erruki gabekoak zirenez, Europarrek urrikaltasunez beterik zeuden, kupituak, limurtuak eta gizaseme bat bidali zuten eta onen izen deitura Lord Eliot jauna omen zen.

Eliot Jauna etorri, burrukalarien aldebiekin itzegin eta gero zitalkeriak, billaukeriak izan omen zuten bere aldia, onda bidea aal izateko edo izan zitteztengo itxura nabarmendu zela.

Zumalakarregiren garaipenen gertakariak, guztiz nabarmentzen ari ziren Gipuzkoako errietan. Aurretik

liberalen mende egon zirenak: Ordizi, Tolosa, Bergara, Eibar bere arma fabrikekin eta abar luze bat karlisten eskuetara erori ziren.
Zumalakarregi, Bizkaian ere sartu zen: une artan Durango, Otxandiano liberalen mende zeuden, gero karlistek, guden bidez jabetu ziren eta bertan zeuden liberalak atxilotuta artu zittuzten.
Liburua irakurrialean irakurlea jabetzen da doakabetasun aundi baten aurrean gaudela .Zumalakarregik liberalen ondamendia susmatuz bere leenezko gogo onez Gasteiz iriaz jabetu zen gero emendik Burgosera eta aurrera joanez Madrilen sartu eta iri kapital onetaz jabetu...
Baiña, Carlos printzea ez zen iñolaz ere iritzi onen aldekoa. Zumalakarregiren asmoa ona ustez, baiño onik bete aal izateko dirua bear omen zen eta aitzakia au izanik edo beste batzuk zirelakoan Carlos`ek Bilbo iriaz jabetu nai omen zuen.
Dudarik ez det jartzen giza-seme bi auen artean eztabaida luzeak eta gogorrak izanen zittuztela. Ala eta guztiz Zumalakarregi kinka batean murgildurik egon zen, luzeetsik sortu zitzaion arrangura estali eziñik. Urrengo egunetan kopetaz illun, gudariekin mintzatzera atsegin izan arren ez omen zen paillatzen.
Esan izan oi da, zelaiera joan aurretik, gerra baten batalla, mai baten inguruan jeneralek edo militar gizonek borroka gailendu lezazkeen bideak arakatu, antolatzen dittuztela eta gero mutilek arma edo beste tramakuloen bidez ekintzez kukurrokoa jo aal izateko egiten zutela, ezagutzen zituen parajeak, lurrak begiz ikusi aal zitekeen modu onenean, lurrak arakatu eta buruan al zen egokienean jasotzen zituen. Gero borroka eldu zen garaierako edo bel belako ezin bazen, gudariek ekintzarako prestatu, paratzen zituen. Leentxexeago esan det gerraren borrokak maai baten aurrean, gerra izanen den parajea arakatu, antolatu eta irabazten direla edo esan dezadan irabazi litezkeela.
Zumalakarregiren pentsamena zen Madrilek Euskalerriko lurreetara bidali zituen jeneralak, autsiak, aalmenik ezan, asaldaturik zeudela eta bera Madrilen erraz sartuko zela, alegia. Ez orratio liberalen gudariak, auek beraien kemenak eta aalmenak zearo elbarrituta zittuzten
Zumalakarregik egoera au ikusita Madrilera joan nai zuen. Au orrela izanikan Carlos Printzeak bere leenbiziko entzun gorrari eutsi zion. Entzun gogortasuna ez zen Zumalakarregirenganakoa izan bakarrik baizik eta Zumalakarregiren alde zeuden beste jeneralengana ere ixuri omen zen. Nik irakurri dedan liburuak dioenez, Zumalakarregiri, erraz izanen zuela iruditu omen zitzaion Bilboz jabetzeaz, sartu bideak arakatu ondoren baiña zein ekintzari ekiteko arakatu egin bear eta erabaki eziñik lanak izan. Bilboko irian gotor-leku asko omen zeuden eta paperak dioenez, Zumalakarregik eta bere gainontzeko jeneralak erabaki eziñik luzaro egon omen ziren, goto-rlekuak banan banari ekiñez eta gaillen atera edo bestela Bilbon sartu leen bait leen borroka gaillenez akittu eta esate baterako eta esanez mutillak oraingoz nagusi gaituk.
1.835. urteko garagarrillean goizeko lauretan Euskal gudariak etzanezko tokitik zutituarazi omen zituen Zumalakarregik borrokarako aukeratuta zituen gudari oberenak prest omen zituen eta auek borrokarako gogoz emen zeuden. Begoñako elizaren ondoan ba omen zen etxe bat Bilbo zuzen zuzenean ikusten zenetakoa, eta etsaiei tirokatzeko oso egokia. Baiña baita ere, orratio, Zumalakarregiren mutilleei aisa aski etsaiek balak ixurtzeko. Goizean goiz, oitura zuen bezalaxe jeiki eta inguruan zeuden gudari batzuei, kañoi bat antolatzen ari zirela, agindu batzuk eman eta gudariek kañoiarekin tiroa botatzera zijoaztela etsaiek bere gotor-lekutik tirokatzen asi omen ziren eta tiro auetako batek bere bala Zumalakarregiren izterraren barruraino sartu omen zitzaion eta gertakaria au izan da, konortea, kordea galtzea bat izan omen zen. Komeriak sortu omen ziren gertakari au izanda, eta emendik atera eta Zornotzako errira eraman omen zuten. Gaua emen igaro eta urrengo goizean, biramonean Durangoko errira eraman zuten. Emen 3 medikuak, zuen zauria, aztertu, arakatu omen zioten. Medikuetako bat estaduna omen zen, urrengoa Carlos printzearena eta irugarrena inglesa.
Bala izter barruan zuenez, atera egin bear eta komeriak sortu emen zitzaizkien gai onekin. Emen zerbait esan bearrean aurkitzen naiz: medikuak, Burgess medikua izan ezik, Euskal armadakoak omen ziren baiñan zirujanoen jakintzaz, ez bear ainbatekoak Hospitalean ere bear aiñeko tresne egokirik...
Luzapenak izan ziren eta Segurazo errira eramana izan zen Zumalakarregi eta emendik berriz zegamara. Azkenean operazioa, erri ontan egitea erabaki izan zen. Arazo aundiren ondoren bala atera omen zioten. Zumalakarregi oiñaze aundien menden egoten omen zen. Oiñazeak aalik eta goxoenak, ariñenak aal izateko, opio delako droga ematen omen zioten. Bala delako ori atera eta laister xamar il zen. Zauritua izan zen egunetik 11 egunetara. Zumalakarregi Zegama errian il zen, 1.835. garagarrillaren 25ean, 46 urte zituela eta gerran sartu zenetik 19 ilabeteetara).

1.835`ko apirillean 7`an, Lekunberriko errian, ospe aundia izan zuen Txaho, zuberotarra eta Zumalakarregi elkartzen dira eta itz solas luze baten ondoren, Thaho`k bere iritzia ematen die billera artara bildutakoei eta au esaten die: Zumalakarregi da gure erriaren askatasunerako bear degun buruzagia. Azken egunetan karlisten buruzagiek eta gudariek, asaldatuta, asperenkatuta eta kenka batean murgildurik egon ziren eta auek denak beren oiñarri eta maisuren ongiezak eta eriotzaren atsekabeek emanak. Gertakari auen ondoren borroka, gatazka zutirik zegoen eta Zumalakarregiren ordezko, Carlos Printzeak, Eraso jenerala izendatu zuen eta loretasun aundirik ez omen zuen lortu.
Zauria alegia, garrantzi aundi gabekoa omen zen, baiña medikuak eman bear zitzaion tratamenduarekin ez omen zeuden ados eta azkenean orrelakotan gertabear ez duena gertatu zen, au da eriotza. Eraso generalak, Ormaiztegi buruzagia ordezkatu zuen, bai orrelaxe izan zen, baiño denbora gutxirako eta modu onenean Zumalakarregiren aulkia bete omen zuen. Baiña, osasunez makal, makalez izakio, zeramakin delako tuberkulosis gaitzaz jota zegoelakoz. Aulkiaz jabetuta eta ilabete gutxiren buruan il omen zen. Au guztia gertatuta, Carlos Printzeak, karlisten buruzagiak, Maroto generala izendatu zuen Euskaldunen buruzagi eta bel belakoan sortu omen ziren eztabaidak.
Carlos Printzeak, euskaldunek zuten benetako naia, ez zuen ulertu. Bene-benetako maite miñaz ez zen jabetu, iruzurki egiten zion joku bide oneri.
Euskaldunek, karlisten Fueroak zituzten zillegizko goiburu.
Euskalerriko lurra maite, maite zuten eta dute euskaldunak, gizaldiz gizaldi beraien lurrak era batean edo bestean eutsi nai izan diote. Gaur egun ere geure burujabetzaz lan egiten degu, arduratzen gera. Carlos Printzeak, Maroto jenerala karlisten gudarien buru aal izateko izendatzen dutenean, gudariek eta auen generalek beraien aserrea eta muzin zitala agertu omen zioten eta Carlos Printzeak, Orbe, Zabala, Latorre eta Zaratiegi, Euskal jeneralak auzitegira eramaten dittuzte, Lizarrako espetxera. 1.838`ko maiatzean, Manuel Urra jenerala, Lizarran, erbestearren aurka "Matxinada" sortz azten du, baiña Carlos Printzeak matxinada azpiratzen du eta Manuel Urra, tiroz ilda da.
Euskaldun gudarien aserrea zabalduaz dijoa eta gertakaria baretu, arindu, naian Carlos Printzeak guda multzo aundi bat Gipuzkoan bilduarazten dittu (erri ez du azaltzen) eta emen itzaldi luze bat ematen di eta zearo agitz arriturik gelditu omen zen. Itzaldia bukatu ondoren Euskal gudariak geldirik eta muturi txintik atera gabe. Gertakarian zergatia, Carlos Printzeak jakin naikio eta aldamenean zuen Lardizabalek ematen dio esanez: auek euskaldun gudariak dira eta gaztelaniaz mintzatu zatzaizkiezu. Jakiña, oraindik gatazka ez da bukatu baiña borroka sortzen ziren lekuetan Euskal gudariak ez omen zire leen bezala borrokatzen. Borrokaldiak, zelaietakoak eta mendialdekoak leen bezain eroso ez omen zirei amaitzen. Carlos Printzeak, Euskal borrokarako agintariak baztertu egiten omen zituen. Eta zetozten ordezkoak egokiagoak ez omen ziren eta sortzen zitzaizkien gatazkak aurrera ez ateratzen.
Carlos printzeak beraren baitango oartu omen zen Maroto jenerala etsaiekin izkutuko arremanetan ari zela eta bere mutillak, etsaiek zeuden lekuetara bidali babesarik gabe eta atxilo izan zittezken tokitan ipiñi.Carlosek susmatu omen zituen zerabizkin okerrak, baiña Maroto maltzurrak, bere agintea beste zenbait buruzagiekin onik oiñarriturik omen zeuzkan eta garrantzizko izan zezakean pausorik ezin eman. 1.839`ko abuztuan, Abadiñoko San Antolin izena zeraman basaelizan Marotok eta Espartero jenerala izkutuan bildurik, beraien artean zeramazkien ain zitalezko, laidozko, doillarazko tratuak egingo zittuzten noski. Bai, zer zen dena. 1.939`ko abuztuaren 31`an, ordurarte borrokatuz, etsai ziren gudaloste biak aurrez aurre tinko, tinko zeudelarik buruzagi bi auek: Maroto eta Espartero an zeuden guzti guztien aurrean, besarkatu egin ziren eta gure Fueroak eta askatasuna autsia eta illik izan ziren.
Noiz arteraiño? Geroak esan bearko luke.
Ordurarteaiño euskaldunek gizaldiz gizaldi, genuen burujabetasuna autsi, eten egin zitzaien gure asabei.
Datorren 2.007. urteraiño, Jainkoa lagun, emen izanen nauzute Leitzeko Plazaola aldizkarian. Agur.

*Mikone`ko Demetrio`ok*

AISLAN, s.l.

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

**AISLAN - LEITZA, s.l.**

☎ 948 51 07 17 - ✆ 689 800 371
Leitzelarreko errepidea, 6 - LEITZA

**EGUZKI ileapaindegia**

ASUN eta LIDIA

ongi pasa pestak

Elbarren 34 - 1A · ☎ 948 610 649 - LEITZA

**LEITZAko**
**gasolindegia**

Rafael Mugicaren alarguna

**948 510 057**

ASTIZ ZURGINDEGIA CARPINTERIA

***Astiz Anaiak***
***Zurgindegia***

***Klase guztietako egur lanak,***
***ateak, lehioak, tarima,***
***armairuak eta kristaldegia.***

Tel. 948 610 606 / 948 510 285

*Pesta on onak pasa ditzazuela.*

**LEITZA**
**eraikuntzak**

*Aupa San Tiburtzioak*

Patxi Arrazola, 14 Tel. 948 61 09 27 - 948 61 09 34

bai Bai Euskarari Ziurtagiria Bidean

**EROSLE**
SUPERMERKATUA

Gora San Tiburtzioak

Tel. 948 51 00 07 - 948 61 06 57 · LEITZA

**LEIZA**
MANDRILADORA

**ONGI PASA PESTAK!**

bai Bai Euskarari Ziurtagiria Bidean

Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 510 600 - 948 510 601 · Faxa 948 510 602

**PERURENA**
harategia

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

*Jai Zoriontsuak opa dizkizue*

Tel.: 948 51 01 64

**OLIVEIRA - VICENTE**
ERAIKUNTZA

Ongi pasa San Tiburtzioak

Amazabal Kalea 17, 3.B. · Leitza · 948 510 516

**HERBODIETETICA**
**BELARRA**

• Estetika zerbitzua

Elbarren, 35 · 948 510 192 · Leitza

**MELO** PINTURA LANAK
**Pinturak**
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
**Tel. 948 510 535 • Leitza**

**URTO KARROZERIA**
TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
**Jesús Azurmendi Jauregi**
Ongi pasa San Tiburtzioak!!
Kamineros etxea BERASTEGI
☎ 943 68 34 99 - 948 61 06 64

**BEATRIZENEA**
TABERNA-JATETXEA
Pesta onak igaro
MENUA • OTARTEKOAK • KAXUELITAK • PINTXOAK
MIKEL DEUNA, 2 • TEL.: 948 50 991 • LEITZA

denontzat MERTZERIA
Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa
Tel.: 948 510 561 • Leitza

ARDI-GAZTA
Gorritz ®
*Pesta alaiak pasa ditzagun errepresaliatuak gogoan ditugula*
Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Guk zerbitzua euskaraz
XABIER SESTORAIN • GORRITZ BASERRIA • LEITZA 948 510 570

**bokatak eta afariak**
**Pesta onak pasa eta txintxo ibili**
**PERITZA TABERNA**
Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Guk zerbitzua euskaraz
**Elbarren 23 - Tel. 948 610 848 - LEITZA**

SAGARDOTEGIA SIDRERIA
**ERREKA**
948 510 625
Erreka auzoa
Leitza
AUPA SAN TIBURTZIOAK
LEITZA • Autobideko irteeran gaude Leitzarako norabidean

CLIK
**FOTO ULAZIA**
Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
Tel. 948 18 33 01
PESTA ZORIONTSUAK IGARO

ADUR
**ADUR TABERNA**
*Ongi pasa pestak*
- Otartekoak ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak: Olagarroa, Grabak, Ziztorra sagardotan

**Elbarren, 16 • Leitza • 948 610 864**

**MENDIGORRI elkartea**
PESTA ONAK IGARO
Patxi Arrazola • Leitza

bai Euskarari Ziurtagiria
Guk zerbitzua euskaraz

HARATEGIA-URDAITEGIA
URKIOLA

*Pai zoriontsuak opa dizkizue*

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA

**DENAUTO SAGASPER TAILERRA**

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA

Eluseder Industrialdea
Poligono Industrial Eluseder

Telefonoa 948 510 610
Faxa 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

**CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

948 61 06 77 • 629 61 19 12

*Ondo pasa San Tiburtzioak!*

BASA KABI
hotel-restaurante

Gustua baduzu, hementxe gaituzu

**Sukaldaritza fina • Enpresako bazkariak**
**Ezkontza eta oturuntzak**
**Jaunartze eta bataioak**
**Jantoki zabalak • Ekitaldi aretoak**
**Aparkaleku zabala • Igerilekua**

Leitzako gaina • 31877 **LEITZA**
Tel. 948 51 01 25 • Fax 948 61 09 65

ZORTZIKO LABETXEA

bai Euskarari Ziurtagiria
Bidean

ZORTZIKO LABETXEA
KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA

- Ogi egin berria
- Prentsa, Gosari goxo goxoa (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapore guztietako kukurutxuzko izozkiak

*Pesta onak pasa*

Elbarren 20 Tfnoa: 948 510 720

# LEITZA GARAJEA
# PEUGEOT AGENTZIA

STIHL AGENTZIA • NEKAZARI TAILERRA

*Ia denok kategoriko pestak pasatzen ditugun*

Landa industrialdea • Telf.: 948 5104 66 / 948 5104 04 • **LEITZA**

# Dia %

# SUPERMERKATUA

Pesta zoriontsuak opa dizkizuegu!

TEL.: 948 510 731

OKABIO

Kafetegia

Dia % Landa Etxea • Leitza

# LENITZ EDARITEGIA

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA

ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 03 33

TORREA TABERNA LEITZA

# TORREA ETXEA

GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA
BORROKA ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE

948 61 09 09



# MARGARI TAXIA

Taxia 24 ordiko zerbitzua • Servicio de Taxi 24 horas

Telf.: 608 87 30 16 • 948 6c0 710

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

iruso

Jatetxe-ostatua

Tel.: 948 397 035 / 669 013 294 • www.iruso.com

**Sagastibeltza eta Artola**

Era guzitako igeltsero lanak

*Gora Leitzako pestak!*

TEL.: 948 510 265 / 948 610 724

**LEIMEN**

Era guzitako elektrizitate lanak

*Jai zoriontsuak denoi!*

**LEITZA** 628 725 396 Argoitz
**MENDILLORRI** 628 725 397 David

**ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

*Ongi pasa Pestak!*

Bide onde etxea **ARESO** • San Miguel, 2 **LEITZA**
948 510 153 / 948 610 682 / 689 701 557
**Larrialdiak:** 948 271020

**Pagozelay construcciones**

**ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA • LANDA ETXEA 1 SOLAIRUA
31880 LEITZA • NAFARROA
TEL. 948 510 346 • FAXA 948 610 962

# VANPAC, S.A.

Vanpac

(Vasco Navarra de Papel y cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61




# G@ZTETXO

ZIBER- GUNEA

@ INTERNETA
@ JOKOAK-SAREAN
@ JUEGOS EN RED
@ ESKANERRA
@ INPRESORA




ELBARREN 16 • LEITZA TEL. 948510741

# GORRITZ
ERAIKUNTZAK·ESKABAZIOAK

# SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!

**ERAIKUNTZAK ETA ESKABAZIOAK GORRITZ S.L.**
IÑURRISTA INDUSTRIAGUNEA, P-21 **LEITZA** 31880
**TFA:** 948 510 140 • **FAXA:** 948 510 996

Bai Euskarari Ziurtagiria
bai
Guk zerbitzua euskaraz

## KAPRITXO

* Opariak
* Bitxiak
* Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA FESTAK!

Elbarren, 19 948 510 748

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Guk zerbitzua euskaraz

---

PELUQUERIA

## ETXEIDE

ILEAPAINDEGIA

RECIENTE APERTURA
DAGOENEKO IREKITA

Elbarren 35 - Tel. 948 510 738 - LEITZA

---

## MAIMUR

• Prentsa - opariak - texto liburuak
• Plastifikatzeak - enkuadernatzeak
• Inpreta lanak - fotokopiak

Herriko Plaza
LEITZA

Tinoa-Faxa
948 510 146

*Ongi pasa pestak*

---

## Lizarraga
harategia

Herriko Plaza - 948 510 283 - LEITZA
ONGI PASA PESTAK!

---

## SAGASTI JATETXEA

Ongi igaro pestak!

GOSARIAK, KAXUELAK, OGITARTEKOAK
Bazkariak eta afariak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

948 610 637 LEITZA

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Bidean

---

## Jose Ignacio ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia - Etxeko txistorra

Tel. 948 51 03 77 LEITZA
Tel. 948 68 30 42 BERASTEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

---

## BITXILORE LOREDENDA

ONGI PASA BESTAK!

❀ LORE NATURALAK
❀ LORE LEHORRAK
❀ EZKONTZETAKO LOREAK
❀ KOROIAK
❀ ETAB.

Elbarren 59 - Tel. 948 510 654 - LEITZA

---

## TXOKO TABERNA

• Pintxoak
• Otartekoak
• Kaxuelak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

---

## BULDAIN
inmobiliaria

Tel.: 948 51 05 34
Mug.: 649 47 66 15
LEITZA

Festa eder hauetan zuen nahiak
bete ditzazuen opa dizuet

---

## JOVIZU S.L.

embalajes

PESTA ONAK
OPA DIZKIZUE

Leitzalarreko errepidea, 1 Km.
948 510 053

RENAULT
ZERBITZUA

**RODRIGUEZ eta ERASO**

**LANTEGIA**

ongi pasa bestak!

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15



**MUSUNZAR OSTATUA**

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren kalea, 14
948 510 607 - 948 510 475
LEITZA

**J.M. HERNANDORENA**

- Burdindegia
- Oparidenda
- Garbigarriak
- Garraioak

ONGI PASA BESTAK!

Tel. 948 510 055

**ZURLAN**

ZURGINDEGIA

ATEAK, LEHIOAK, TARIMA ETA BESTELAKO ZURGIN-LAN GUZTIAK

GOIKO ERROTA • ☎ 948 510402 • Mugi.: 609 067123
ONGI PASA PESTAK!!

**ORAIN ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei*

LEITZA

**GOZOTEGIA**

*Eguzkitza*

B.° Erreka, 3 bajo - Telef. 948 51 06 14 LEITZA
Elbarren, 35 -Telef. 948 61 06 46 LEITZA
San Frantzisko, 24 - Telef. 943 65 00 41 TOLOSA

Ongi pasa pestak!

**Gaztañaga taberna**

Otartekoak, Pintxo beroak, kaxuelak
948 61 07 08

**TXARAGORRI**
ITURGINTZA
FONTANERIA

ONGI PASA BESTAK!

Elbarren, 56 (Martikonea) • Leitza • 649 853 440

**ASTIZ LIBURUDENDA**

Elbarren kalea

- Prentsa
- Testu liburuak
- Opariak
- Inprenta lanak
- Eskolako gaiak

Pesta onak pasa

Tel / Faxa 948 510 262

Ongi pasa Pestak!!

**KORNIETA**
ELKARTEA

Ongi pasa San Tiburtzioak

LEITZA

**IMELDA LARRAZ**

Estankoa, janari denda etabar...

Jai zoriontsuak opa dizkizue

**GARBI**

*Garbigaidenda eta lurrindenda*

*Ongi pasa pestak!*

Tel.: 948 51 01 73 • LEITZA

**LEITZELARREA, S.L.**

Aroztegi metalikoa

Landa Poligonoa, 20
Tel. 948 510 598 - 669 368 991 • LEITZA

**ARAKINDEGIA**

JATETXEA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 42 • LEITZA • Tel.: 948 51 00 52

**BIKOITZ**
**Taberna**

» Pintxoak
» Otartekoak
» Pastelak
» Tartak

Enkarguak ere hartzen ditugu

Ongi pasa pestak!

Elbarren, 16 LEITZA • Tel. 948 51 00 72

**GURATZ-MENDI**

K.K.J. ELKARTEA

Ongi pasa pestak!

Elgoien, 22 • LEITZA

**GARZIARENA**

ARZOZ ARRAINDEGIA



EGUNEKO ARRAINA

*Ongi pasa pestak!*

UHARTE GOTZAIA, 3 LEITZA • Tel. 948 51 05 90

**BIOK JANTZIAK**

Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak

Elbarren, 32 • LEITZA • Tel. 948 51 05 58 / 948 51 04 77

**PLAZA AUTOESKOLA**

ASEGUROAK

Pesta onak pasa ditzazuela

Uharte gotzaia 8 • LEITZA • Tel. 948 51 03 38

**ARIZTIMUÑO ANAIAK**

eraikuntzak

*Lan orokorrak eta berrikuntzak*

Ongi pasa pestak!

Tel. 948 51 02 02 / 948 51 03 74 • LEITZA

BANCO DE VASCONIA

*Leitzar eta bisitari guztiak pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*

Tel. 948 51 01 35 LEITZA

l e i t z a r r a

Leitzarra taberna

PESTA ONAK OPA DIZKIZUE

Tel. 948 51 03 52 • LEITZA

**TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA**

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).

Leitze - larreko errepidean LEITZA

Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

**JUBILATUEN TABERNA**

Ongi pasa San Tiburtzioak

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Guk zerbitzua euskaraz

948 61 09 35

**FISIOETXEA**

Ane Egizabal Llata

Fisioterapeuta

- Erreabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio masaia
- Erditze aurreko / ondorengo tratamendua:
  - Mutuak
  - Aseguruak
  - Partikularrak

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Bidean

**J EXCAVACIONES OARBE S.L**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

OBISPO HUARTE 8

Tel./Fax.: 948 610 971

Mugikorra: 629 219 068

Grupo Tanatorio Taldea

**IRACHE**

Maldarreka S.L.

Leitzako Belatokia

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TEL. 948 63 74 04 · 628 03 02 90

**ETXE-TRESNAK S.L. ELEKTROGAILUAK**

Instalazio elektrikoak

Ongi pasa pestak!

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Bidean

Tel.: 948 510 208 / 948 510 181

LEITZA

**LEITZA** AHOLKULARITZA ASESORIA S.L.

- » Langile autonomoak
- » Nomina eta Gizarte Segurantza
- » Enpresa berrien kudeaketa
- » Kontabilitatea
- » Kotxeen transferentziak
- » IVA eta IRPF
- » Aholkuralitza juridikoak
- » Errenta aitorpenak

Bai Euskarari Ziurtagiria — bai — Guk zerbitzua euskaraz

Jai zoriontsuak opa dizkizu

Manuel Lasarte, 3 behea · LEITZA 948 510 990

ARRARAS
edariak, S.L.
eda
C.I.F. B-31838333
Polg. Eluseder, nave 1ª • ARESO (Navarra) • hnos. arraras@telefonica.net
Tel.: Oficina: 948 1 08 88 • Fax: 948 1 08 3 • Móvil: 630 048 770

Arantxa
ileapaindegia
Gora San tiburtzioak
Obispo Huarte, 8
☎ 948 610 931

TALLERES
ONGI PASA PESTAK!
Ireber S.L.
MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA
Landa industrialdea - Pab. 9B - 10B LEITZA
☎ 948 629 535 - 629 823 191

Jose maria
etxeberria
gizonezkoentzako ileapaindegia
Gora San tiburtzioak
Jm 948 510 282 • LEITZA

LEITZAKO
EUSKALTEGIA
Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.
Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?
J. Sarasua
Guk zerbitzua euskaraz
ika
948 610 776

LOREA
ileapaindegia eta
solarium-a
Gora San tiburtzioak
☎ 948 610 907 • LEITZA

CAJA RURAL
DE NAVARRA
NAFARROAKO RURAL KUTXA
Pesta onak pasa
Leitzako Bulegoa • Elbarren, 35 • Tel / Faxa: 948 610 735

# ZUBI

Pinturas • Margoak

Pintura en general

Pol. Ind. Usabal nº 14B - 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Elbarren 97 2º izda - 31880 LEITZA (Navarra)
Telf. 667 696 008 Fax: 948 510 978

**ONGI IGARO PESTAK!**

bai Euskarari Ziurtagiria Bidean

ONGI PASA PESTAK!

TALOTEGIA S.L.L.
Manuel Lasarte, 1 behea.
31880 Leitza NAFARROA

T. 948 510 989 M 649 241 804
E-posta: taloak@taloak.com

www.taloak.com

TALOAK

GURE BETIKO TALOA

OHITURARI EUTSIZ

# GURIA

P. KALDERON

KARROZERIAK
TXAPA - PINTURA

**Txapa** • Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.

**Pintura** • Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara...)

**Autogarbiketa** • Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztia.

**Berreldaketa** • Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (llantak, pilotoak, kateak, etab...)

LANDA POLIGONOA • 948 51 02 55 • LEITZA

# LANDA

**OSTATU-JATETXEA**

Gora San tiburtzioak





**www.landaostatua.com**